

Berrikuntza teknologikoko proiektuetarako hamar beka emateko deialdia egin du Vital Fundazioak

- **Azken bi ikasturteetan Egibideko ikastetxeetako goi-mailako heziketa-zikloetako tituludunei zuzenduta daude, eta bakoitza 3.000 eurokoa da**

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailak 4.- Vital Fundazioak berrikuntza teknologikoko proiektuak garatzeko beka deialdi berria abiatu du. **Egibideko** Lanbide Heziketako ikasle tituludunei zuzenduta, hamar beka emango dira, bakoitza 3.000 eurokoa. Ahal dela, posta elektronikoz eskatu beharko dira, eta, ezin bada, ikastetxeetan bertan, **irailaren 14tik 18ra** bitartean.

Arabian Lanbide Heziketa garatzea izan da beti Vital Fundazioaren lehentasunetako bat, eta, horregatik, urtez urte lankidetzaz hori mantentzen eta indartzen jarraitzen du. Aurreko edizioetan bezala, hamar beka emango dira, bakoitza 3.000 eurokoa. Horiek eskuratu ahal izateko, goi-mailako teknikariaren titulua lortuta izan behar da Egibideko campusetako batean (Arriaga, Jesús Obrero, Mendizorrota, Molinuevo edo Nieves Cano) 2018/2019 edo 2019/2020 ikasturteetan. Dokumentazioa jaso eta behar bezala beteta entregatu behar da **irailaren 14tik 18ra** bitartean, ahal dela posta elektronikoz edo, ezin bada, idazkaritzan, campusetako edozeinetan. Idazkaritzara joan ahal izateko, aldeztu aurretik hitzordua eskatuta beharko da Egibideren webgunearen bidez (www.egibide.org). Beken iraupena 2020ko urritik 2021eko ekainera bitartekoa izango da, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 14:00etara.

Hauek dira beken xede diren arloak::

- 1.- Kalitate-prozedurak laborategi kimikoan
- 2.- Ingurumena kudeatzeko eta sensibilizatzeko prozedurak
- 3.- Kudeaketarako aplikazio informatikoak garatzea
- 4.- Ostalaritzaren kudeaketa integrala
- 5.- Marketina eta Komunikazioa/Administrazioa eta Finantzak/Zuzendaritzari laguntzea
- 6.- Ekipo informatikoa
- 7.- Laborategi klinikoaren eta biomedikoaren arloko proiektuak garatzea
- 8.- 4.0 industrian sistema integratzea
- 9.- Ekipo industrialen mantentze-lanak kudeatzea
- 10.- Fabrikazio- eta muntaketa-proiektuak garatzea